

IJITO-FAMILIEKIKO HARREMANAK ETA FAMILIA HORIEK ESKOLA-BIZITZAN PARTE HARTZEA

“Familia guztiek nahi dute onena beren seme-alabentzat”

Dezente dira horrelako gaiak behin jorratzen hasita ildo horretan lan egitea pentsatu duten ikastetxeak. Batzuetan, ikastetxe osoa izaten da, eta beste batzuetan, gehienetan, zenbait irakasle baino ez.

Emaitzak ez dira beti berdinak izaten; irakasleen jarreraren, irmotasunaren araberakoak dira, eta eginkizun horretarako daukaten denborak ere –noski, epe ertainerako lana da hau– eragina izaten du. Helburua familien eta irakasleen arteko harremanak erraztea izanik, emaitzak hobeak izaten dira irakasleek eginkizun horren ardura beren gain hartzen dutenean.

Hala ere, harreman hori ez da berdinen arteko harremantzat jotzen; elkar ulertzeko eta gauzak adosteko elkarrizketatu ordez, irakasleen ahalegina familiei “zer egin behar duten esatea” izaten da.

Zenbaitetan, pertsona bereziak izateagatik (bai familietan, bai irakasleen artean), egoera zailak izaten dira, eta, horietan, kanpo-eragileen parte-hartzea behar izaten da harreman hori errazteko.

Komunitatearekiko harremanei dagokienez, harreman mugatuak izaten dira, zenbait eskaera egitera mugatzen baitira, edo, gehienez ere, koordinazio-saiakeretara, komunitate-sarearen baitako lana aintzat hartu gabe. Lan hori, hain zuzen, ezinbestekoa da jarritako helburuak lortzeko.

Ikasle ijitoen eskolatzea hobea izan dadin, oso garrantzitsua da, gure ustez, honako helburu hauek lortzeko lan egitea:

1. Familien eta irakasle tutorearen arteko harremana erraza eta konfiantzazkoa izatea (“bitartekarien” beharrik gabekoa).
2. Familiek eskola-bizitzan apurka-apurka parte hartzea, gero eta gehiago.

Familiekiko harremana erraza eta konfiantzazkoa izatea funtsezkoa da:

- ⇒ Familiekin afektibitatez komunikatzeko eta beren seme-alabekiko interesa dugula sentiarazteko.
- ⇒ Familiek beren seme-alabekiko autoritatea gure esku uzteko.
- ⇒ Familien inplikazioa (apurka-apurkakoa eta familien eskola-ahalbideen araberrakoa) haurren eskola-prozesuan gero eta handiagoa izateko.

Horretarako, ezinbestekoa da elkarrizketa berdinen artekoa izatea, hezkuntza akademikoak haurren etorkizunerako duen garrantzia onartzea, eta familiek eta ikastetxeak elkarrenganako konfiantza izatea; horiei guztiei esker, helburuak bateratu ahal izango ditugu, bai eta familien eta ikastetxeen arteko harremanaren oinarriak ezarri ere.

Baldintza horiek familia guztiekiko harremanetan hartu behar dira kontuan, baina ezinbestekoak dira ijito-familielikiko harremanetan.

Horrelako elkarrizketa lortzeko, konfiantzazko giroa eta denen konpromisoa izateko, **familia guztiekiko elkarrizketak egitea** aintzat hartu behar dugu. Elkarrizketa horietan, honako hauek hartu behar ditugu kontuan:

- 1- Gutxienez, hiruhileko guztien hasieran egin behar dira. Horrek aukera emango digu elkarrizketak ikuspegi positiboaz egiteko, hori behar-beharrezkoa baita harreman on baten oinarriak ezartzeko.
- 2- Elkarrizketetarako hitzorduak ezartzeko moduak zainduko ditugu, eta bide zuzenak erabiltzen saiatuko gara (harreman pertsonalen bidez edo telefonoz; ikasleen bidez; topo egitean; ikastetxeko sarrera- eta irteera-orduetan, etab.). Ez ditugu erabili behar urruntzen duten moduak (esaterako, gutun ziurtatuak).
- 3- Ordutegiarekin malgutasunez jokatu behar dugu, haien eta gure egoeretara egokitzeko, eta irmo saiatu behar dugu, elkarrizketa lortu arte.
- 4- Elkarrizketak presarik gabe egingo ditugu, leku lasai batean, eta etenik egon ez dadin saiatuko gara. Gai guztiei buruz argi eta garbi hitz egiteko aukera emango diegu.
- 5- Jokaera ahalik eta gehiena zainduko dugu, eta guk geuk elkarrizketa batera edo gestioak egitera goazenean jaso nahi dugun tratua emango diegu. "Elkarrizketa zerbait hartu bitartean" (esaterako, kafea) egiteko aukera badago, askoz hobeto.
- 6- Jorratzen ditugun gaiei buruz zer-nolako iritzia duten galdetuko diegu: familiek elkarrizketan parte hartzea funtsezkoa da.
- 7- Hasiera-hasieratik adieraziko diegu haien interesak eta gureak berdinak direla; hau da, beren seme-alabentzat onena lortzea.

Horretarako, batera egin behar dugu lan, hartu beharreko neurriak adostuz.

- 8- Proposamen gutxi egingo ditugu, eta argi eta garbi. Elkarrizketaren amaieran, adostutakoak hitzez adieraziko ditugu berriro, elkar ulertu dugula bermatzeko.
- 9- Beren seme-alabekin lotutako guztiaren berri emateko konpromisoa hartuko dugu.
- 10-Amaitzean, aurretik prestatutako gidoian, jorraturiko informazio garrantzitsu guztia idatziko dugu, hurrengo elkarrizketetan oinarri gisa erabiltzeko.

Harreman horretarako oinarriak ezarri ondoren –edo, zenbaitetan, aldi berean–, familiek ikasgelako bileretan (adin jakin batzuetatik aurrera, ikasleekin batera eginiko bilerek oso emaitza onak ematen dituzte) parte har dezaten pentsatzen has gaitzke, honako hauetarako:

- Ikasgelaren funtzionamenduari buruz hitz egiteko...
- Ikastetxea, gelak ezagutzeko
- Gai komunei buruz hitz egiteko (zenbait ikasketaren eta ohituraren garrantzia, institutuan hastea, etab.)
- Beren seme-alaben lana ikusteko (erakusketak, jaialdiak, bideo-emanaldiak, etab.).

Hori guztia prestakuntza ona da familiek eskola-bizitzan parte hartzearen alde egiteko. Kontuan hartu behar dugu ijito-familia gehienak, oraingoz, ikasketarik gabeak direla; beraz, eskolarekin lotutako guztiak atzera eragiten die.

Familia horiek eskola-bizitzan parte hartzea nahi badugu, beraiengana hurbildu beharko dugu, eskolari buruzko galderak egin (zer nolako iritzia duten eskolari buruz, zer gustatzen zaien eta zer ez, zer egingo luketen eskola hobetzeko), bai eta zenbait arazo zehatzetan laguntzeko eskatu ere.

Hori lortzeko, denbora eman beharko dugu:

- Talde murriztuekin elkarrizketak eta bilerak egiten.
- Antolatzen ditugun ekitaldi irekietan hitz egiten: erakusketetan (lanenak, argazkienak...), jaialdietan eta abarretan.
- Kafetxo bat hartu bitartean hitz egiten.
- Ijito-elkarteekin batera eginiko jardueretan.

**IKASLE IJITOAK ESKOLATZEKO TALDEA
Eskola Inklusiboa (Aniztasuna/Generoa)**